

# *Inmigrazioaren Tokiko plana*

2004-2006

Barakaldoko Udaleko  
Gizarte Zerbitzuak Arloa

Área de Servicios Sociales  
del Ayto. de Barakaldo

*aurreran doan herria*  
*un país en marcha*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETARAKO SALA  
Immigración-Euzkadiarria

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Inmigración



BARAKALDOKO UDAL GORENA  
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

---

# Inmigrazioaren tokiko plana 2004-2006

Barakaldoko Udala  
Ayuntamiento de Barakaldo

© Barakaldoko Udala.

Lege Gordailua: BI-2757-04

Barakaldo, betidanik izan denez harrera oneko herria, ez zaio bada arrotza egiten migrazio fenomenoak, antzinatek baitatorkio tradizio hori; gure egungo Barakaldoren motor sortzaile, sekulako garrantzia garrantzia izan du, gure herria garatu eta sendatzeko.

Udal Batza hau, herrita guztien aurrean hartutako konpromisoari erantzunez, eta berdintasunaren, eraginkotasunaren eta legezetasunaren printzipioak oinarri hartuta, lanean ari da, baliabide normalizatuen bitartez, hiritasunari darizkion funtsezko eskubideak bermatzeko.

Horregatik, Barakaldoko Udalak berdintasunaren eta solitatearen printzipioekiko leial jokatzuz, etorkinak gizateratzeko eskeari erantzun nahi dio, eta errealitate horri bideak ireki, inmigrazio politika eginkor eta eraginkoren bitartez.

Segur naiz Inmigrazioaren Lehenengo Udal Plana etorkinen gizarteratze egokia lortzeko tresna egokia dena, gure herri guztiontzako espazio bihurtzeko.

Tontxu Rodríguez Esquerdo.  
Alkatea.



# AURKIBIDEA

I. Sarrera .....	8
II. Legegintza markoa .....	10
III. Atzerriko inmigrazioaren errealitatea Barakaldoko udalerrian .....	18
IV. Oinarrizko kontzeptuak .....	23
V. Planaren printzipio gidariak .....	26
VI. Planaren definizioa eta xedea .....	31
VII. Eskuartzeko arloak eta helburu espezifikoak .....	33
Berme juridikoak, gizarteratzea eta baliabide sozialak .....	33
Osasun arloa .....	35
Etxebizitza arloa ..	37
Hezkuntza arloa .....	40
Hiri partaidetza arloa .....	44
Kultur, kulturartekotasun eta sentsibilizazio arloa .....	46
Lan arloa .....	48
Baterako garapen arloa .....	51
Instituzio antolakuntza arloa .....	53
Informazio arloa ..	54
VIII. Ebaluaketa eta jarraipena .....	57



# I. SARRERA

*Laneskua eskatu zuten eta gizasemeak etorri zitzaizkien*  
MAX FRISCH

Gure herrian, atzerriko inmigrazioaren errealitatea nahiko fenomeno berria da; nazioarteko sareetan txertaturik gaudenez, estatuko gainerako udalerrietan laurogeiko hamarkadaren erdialdeaz geroztik gertatzen ari den joera da, geroz eta handiagoa den atzerriar multzoaren herrialde hartzaile suertatu garelako.

Barakaldo, jatorriz abegitsua denez, ez da fenomeno horretatik kanpo geratu, eta gure udalerrriaren garapenean eta sendartzean aspaldidanik integraturik dugu, bera izan baita egungo gure Barakaldoren motore sortzailea.

**Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planak** globaltasuna du ardatz, hala sustantziaren alderdiari dagokionez nola tresnenari dagokionez. Ez da hutsala, migrazio prozesuen kudeaketa kolektibo zuzena lortzea garatutako gizartearen funtsezko erronketako bat izatea. Epe ertain eta luzera bideratu beharreko eginkizun honek gure gizartearen funtsezko elementuei eragiten die, eta bereziki, ororen giza eskubideak aintzat hartzeari. Horrek guzti horrek gai horri dagokionez politika arrazional eta zuzenak erantzukizunez hartzera garamatza, ahalik eta adostasun sozial eta politiko handiena erakarritz, eta inplikaturiko instantzia publiko desberdinen eskuartzeak eta gizarte zibilarekikoak ere koordinatuz eta integratuz. Euskal Administrazio Publikoek erantzuna eman diete alor desberdinetatik (hezkuntza, sanitatea, gizarte zerbitzuak...) inmigrazioaren arazoari, eta egun, EAEn lehenengo **Inmigrazioaren Euskal Plana** dugu, bertara bilduta daudela neurri guzti horiek eta bultzatu nahi dituen beste berri batzuek, kulturarteko gizarte baterantz abiatzeko.

Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Arloan, guri dagokigun esku-duntza eremutik, herritar guztiekin hartutako konpromisoari erantzuten dion lana egiten ari gara, berdintasunaren, eraginkortasunaren eta legezketasunaren printzipioetan oinarriturik, baliabide normalizatuak baliatuz, herritarrei dagozkien eskubideak bermatzeko. Gizarte Zerbitzuek, beraz, normalizatze bokatzea dute, eta zeharkakotasunetik abiatu, etorkin-oldeari harrera egin nahi diote, normaltasun osoarekin eta eskubide eta aukera berdinak eskainiz. Horretarako taitu du orain aurkeztuko dizuegun Barakaldoko Inmigrazioaren Udal Plana. Horri esker, Udaleko arlo guztietatik aritzeko jarduketara marko

normalizatua eta departamentu-artekoa bideratuko da eta udalerriko mintzaide guztiak inplikatu eta koordinatuko ditu. Plana aitzindaria da, gure udalerrira datozen atzerriko etorkinen integrazio osoa, sarean lan eginez, bermatzeko modukoa.

## II. LEGEGINTZA MARKOA

Inmigrazioari dagokionez, politika espainiarra ez da independentea eta ez dago autonomiaz erabakia. Ezin saihets daiteke, nazioarteko araubidea –hala komunitarioa nola komunitatez kanpoko– dela, politika horren diseinua eta egikaritzea gero eta indar handiagoz baldintzatzen dituena.

1978ko Konstituzio Espainiarrak berak, 13. artikuluan, “atzerritarrek Espainian Titulu honek bermatzen dituen askatasun publikoak izango dituzte, itunek eta legeak ezarritako moduan” dio.

Ildo berean, Goren Arauaren 10.2 artikuluan “Konstituzioak aitortzen dituen Oinarrizko Eskubideei eta Askatasunei dagozkien arauak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren, eta Espainiak gai horiei buruz berretsitako nazioarteko itun eta tratatuen arabera interpretatuko dira” ezarrita dago.

Azkenik, konstituzio-testuaren 96. artikulua inplizituki onartzen du, haien artean arazorik sortuz gero, Espainiak balio osoz izenpetu eta behar bezala argitaratutako nazioarteko itunek barne-zuzenbidearen gainetik duten lehentasunezko izaera.

Horren guztiorrengatik, nahitaez azaldu behar da nazioarteko zer konpromisotara makurtu behar duten botere publikoek gizarte hartzaileetan etorkinek modu normalizatuan integratzeko izango duten gaitasuna baldintzatuko duten politikak diseinatu eta egikaritzekoan.

### Nazioarteko araubidea

1948eko abenduaren 10ean, Nazio Batuen Antolakuntzaren 183. Biltzar Nagusian onartu eta aldarrikatutako **Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsalak** bere artikuluen sortan gizaki guztien askatasuna eta berdintasuna sagaratu ditu duintasunean eta eskubideetan, arraza, kolore, sexu, erlijio nahiz beste edozein baldintza kontuan hartu gabe, libre zirkulatzeko eskubidea eta bizitokia edozein herrialdean aukeratzekoa, ezein herrialdeetatik irtetekoa, etab.

**Langile migratzaileei buruzko OITren 97 zenbakiko 1949eko Hitzarmenak (berrikusia)**, enpleguagatik migratzen duten langileei aplikatzekoa, migratioak zer baldintzetan egin behar diren azaltzen du zenbait xedapenetan, eta tratatu berdintasuna bermatzen die langile migratzaileei. Hitzarmena sinatu duten estatuek beren lurraldeetan modu zilegian dauden etorkinei tratatu ber-

dintasunaren printzipioa aplika diezaietela aurreikusten du, nazionalitatea, arraza, erlijioa nahiz sexua kontutan hartu gabe.

**Eskubide Zibil eta Politikoen 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Paktuak** ez diskriminatzeari, nahitaezko lanari eta sindikatu elkartekide izateko eskubideari buruzko xedapenak biltzen ditu. Paktua izenpetu duen estatuetako bateko lurraldean dauden gizaki guztiei, hartara bildutako eskubide guztiak aintzakotzat hartuko zaizkiela bermatzen du, inolako desberdintzerik –baita nazio jatorriari dagokionik ere– egin gabe.

**Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Paktuak** ez diskriminatzeari, lanerako eskubideari, sindikatueta izena emateari, greba egiteko eskubideari eta behar adinako bizitza maila, gizarte segurantza, etxebizitza, hezkuntza, kultura eta enplegua izateko eskubideari buruzko xedapenak biltzen ditu.

**Langile emigranteei buruzko OITren 143 zenbakiko 1975eko Hitzarmenak** (xedapen osagarriak) enpleguan langile emigrante guztien oinarritzko giza-eskubideak denek aintzakotzat hartu beharra eta migrazio klandestinoak antzeman eta ezabatzeko eta migranteen enplegu ilegala deuseztatzeko hartu beharrezko neurriak ezartzen ditu. Era berean, hitzarmena berretsi duten estatuak, enpleguari eta okupazioari gizarte segurantzari, eskubide sindikal eta kulturelei eta banakoen eta kolektiboen eskubideei dagokienez, benetako tratu bera ematea sustatzera behartzen ditu.

**Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren 1985eko abenduaren 13ko 40/144 Ebazpenaren** bitartez bizi diren herrialdean nazionalak ez diren gizabanakoen eskubideei buruzko deklarazioa onartu zen.

**Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren 1985eko abenduaren 13ko 40/144 Ebazpenaren** bitartez, langile migratzaile eta haien senitarteko guztien eskubideak babesteari buruzko nazioarteko konbentzioa onartu zen (indarrean, 2003ko uztailearen 1a geroztik).

## **Araubide Europarra eta Komunitarioa**

**Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko 1950eko azaroaren 4ko Europako Hitzarmenak** hainbat irizpide ezarri ditu, zuzenean lanerako eskubidearekin zein eskubide sindikalekin zerikusia dutenak (1, 2, 3 eta 11).

**1961ean sinatutako Europako Gutun Sozialak**, besteak beste, langile migranteek diskriminatuak ez izateko eta babeserako duten eskubidea arautzen du.

**1989an izenpetutako Langileen Oinarrizko Eskubideen Europako Gutuna** eta TUEren 6. artikuluko 2 atala eta 7. eta 29. artikuluko aipatutako Europako Batasunak oinarritzat dituen funtsezko balioen sintesia da, askatasun, segurtasun eta justizia espazioak sortzearena, alegia.

Bertan, libre zirkulatzeko eskubidea, enplegua eta lansaria izatearena, bizitza eta lan baldintzak hobetzearena, babes sozialarena, elkartzekoa eta abar ematen dira aditzera.

Estatu-kideek erreparo ugari izan dituzten arren, beldur zirelako beren subiranotasunaren zati handi bat inmigrazioaren inguruko hainbat alderdirekin ukituta gerta ote zitekeen edo, Europako Batasuna protagonismoa bereganatuz joan da, eta gaur egun, inmigrazioaren inguruko politika komunitariorik badela esan daiteke.

**Europako Elkarte Ekonomikoa eratzeko** 1957ko martxoaren Itunak oinarrizko printzipioetako bat pertsonen libre zirkulatzeko eskubidea zuen arren, hura ez zen benetan islatu, 1985an, Schengen Akordioa sinatu zen arte. Horren bitartez, eta komunitatearen egituretatik kanpo, zenbait herrialdek –Frantzia, Alemania eta Beneluxeko estatuak– barne mugetako kontrolak ezabatzea erabaki zuten, kanpoko aldeko mugetako kontrolak indartuz, eta bisatu, asilo eta lankidetzak polizial eta judizialaren inguruko gaietan hainbat baterako neurri erabakiz.

Libre zirkulatzeko eskubidea benetan gauzatzeak espazio europarrak mugarik gabe ongi jarduteko ezinbesteko politika osagarriak hezurramitu beharra Europako Batasunak bere esku hartu beharrari buruzko eztabaida berpiztu zuen. 1993an, **Maastrichteko Itunari** esker, justizia eta barne erregimenaren inguruko gaietan gobernuen arteko lankidetzak eraikuntza europarraren zutabeetako bat bihurtu zen, kanpo mugen kontrola, inmigrazioa eta asiloa nabarmendu zirelarik. Marko horren barruan kokatu behar dugu Schengeneko Akordioa (1958), 1995etik indarrean dagoena, non arautzen den muga komunitateko kontrolen pixkanakako deuseztapena.

Ondoren, **1997ko uztailako Amsterdameko Itunak** funtsezko aldarazpenak sartu zituen gaietan, politika komunitarioari “Schengeneko ondarea” deiturikoa erantsiz, eta horrek estatu guztien, Erresuma Batuen eta Irlandarena ezik, politika bateratua ekarri zuen, kanpo mugen kontrolean eta pertsonen libre zirkulatzeko eskubidea sendartze bidean.

**1999ko urrian, Tampereko (Finlandia) Europako Kontseiluan** EBko 15 estatu-kideetako mandatariek inmigrazioaren politika komunitario baten oinarriak ezarri zituzten, eta orientabide zenbait uztartu, Amsterdamen hartutako erabakiak jarduketara mandatu zehatz bihurtzeko. Politika komunitarioa garatzeko ildoak bereziki eragin zioten kanpo mugak sendartzeari, hirugarren herrialdeetako nazionalak “zuzen” tratatzeari eta asiloa eska zezaten pertso-

nentzako estatutu uniformearen sortzeari. Orduz geroztik, inmigrazioaren arazoa etengabe aztertzen da foro guztietan.

Ez da ahaztu behar, ildo horiek Europako Batasuneko estatu-kideek ez ezik politika horrek ukitutako eskuduntzak dituzten erregio eta tokiko agintaritzek ere derrigorrez aplikatu beharreko marko bateratua direna.

## **Estatu Araubidea**

Nazioarteko instantzi horiez gainera, eta batez ere Europako Batasunarenaz gainera, egungo inmigrazio politiken garapena ulertzeko gakoetako bat administrazio espainiarrean eskuduntzak nola banatzen diren ulertu beharra dago.

1978ko Konstituzioak zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa eratu du (EB 1.1 artikulua), eta aldi berean herritar guztiei eta horiek osatzen dituzten taldeei berdintasun sozial, erreal eta eraginkorra izateko eskubidea aitortzen die, bai eta era guztietako diskriminazioak gainditzeko eta beren garapen erabatekoa –hala pertsonala nola soziala– oztopa dezakeen ezin oztopo deuseztatzekoa (EB 9.2 artikulua).

Inmigrazio gaietan eskuduntzak nola banatu aztertzeko abiapuntua 149.12 artikuluan zehazten da, nazionalitateari, inmigratioari, atzerritarrei eta asilo eskubideari buruzko eskuduntza Estatuarena ez beste inorena dela adieraziz.

Aurreko orrialdeetan esan dugunez, eskuduntza hori Espainian bizi diren atzerritarren Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruz abenduaren 22ko 8/2000 LOK aldarazi zuen urtarrilaren 11ko 4/2000 LO Erreformatzeko azaroaren 20ko egungo 14/2003 LOren garapenean zehaztu egin da, eta bat dator “Espainiak, eta zehazki Europako Batasuneko estatu-kideen estatu eta gobernu buruek 1999an Tamperen urriaren 16 eta 17an, askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat sortzeari buruz onartutako ondorioekin”, zioen azalpenean dioen bezala.

Lege horretan, atzerritarrek Konstituzioaren I. Tituluan aitortutako eskubide eta askatasunak izango dituztela adierazten da, nazioarteko itunetan, aipatu legean eta horietako bakoitzaren jarduna arautzen duenetako bakoitzean ezarritako moduan. Arautze berri honen ondorioak, atzerriko etorkinek dituzten eskubideen eduki materialari eragiteaz gainera, euren egoera administratiboan oinarritutako atxikipen eskemak ezartzen baitira, eragin zuzena du, aurrerago aztertuko dugunez, toki eremuetan, populazio horien integrazio soziala errazteko gaitasunean.

Indarrean jarri zenetik, testuak jasandako hirugarren aldarazpenaren emaitza da azaroaren 20ko 14/2003 LO. Erreformaren punturik nabarmengarrienetakoa inmigrazio ilegalaren aurka borrokatzeko erabakitako neurri-sorta da, funtsean, aberriratzeari buruzko irizpideak bateratzen dituena, garraiolariak pasaiariez informatzera behartuz eta eremu europarrean mugen kontrola hobetuz, egozte ebazpenak elkarri onarturik. Horrezaz gainera, testuak Goren Epaimahaiaren jurisprudentzia txertatu du –arauaren 70 artikuluetatik 20 aldarazi ditu–, Sevillan izan Europako Gailurretik inmigrazio gaietan taiututako zuzentarauak egokitu ditu eta “senitarteko iruzurrezko birtaldekatze kateatuak” izenekoak ahalbide ditzakeen ezein zirrikitu suntsitu du.

Era berean, erreforma horrek inmigrazio alorrean, atzerritarrei dagokien gaien administrazio publikoen arteko lankidetzaz aurreikusten du, estatuko segurtasun indar eta gorputzak estatuko administrazioaren beste organo batzuek duten informazio zehatzetan eskuartzeko bide emanez.

Estatuak bere gain hartzen du atzerritartasunaren nukleo gogorra izenez ezagutzen duguna: migrazio fluxuen kudeaketa eta estatuak, kasuen arabera, itzularazi edota egozten dituen irregularrak sartzeari ekiditeko mugen kontrola. Horrek ez du esan nahi, ordea, horri buruzko gai guztiak haren esku soilik daudenik.

Konstituzioak berak 148. artikuluan (1.3, 1.17, 1.20 eta 1.21 ataletan) elkarte autonomoetarako eskuduntza zehatzak gorde ditu, hala nola, etxebizitza, kultura, asistentzia sozial eta sanitatearen alorrean, eta horrezaz gainera, artikuluko bereko 2. atalean, autonomi estutuen esku uzten ditu antzeko eskuduntzak, herritarren ongizatearen beste zenbait alorretan (hezkuntza, lana, etxebizitza, etab.).

Estatuak, Gobernuak urtero 1993a geroztik onartu ohi duen langilekuotaren bitartez, lurralde espainiarrean urtero sartuko den etorkin erregularraren kopurua erabakitzen du, bai eta banaketa geografikoa eta zer sektoretan jardungo duten ere.

Era berean, berea du soilik etorkin ekonomikoei egoitza eta lan baimean emateko eskuduntza, bai eta baimen horiek berriztatzeko ere baimenak iraunkorrak nahiz aldi baterakoak izan daitezkeelarik. Barne Ministerioari, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioari eta Kanpo Arazoetako Ministerioari dagokie erabaki horien kudeaketa koordinatua.

L8/2000k erreformatutako L4/2000ra arte, elkarte autonomoek ez zuten alor horietan eskuartzen. Etorkinak gizarteratzeko foroak (1995) delakoak soilik eman zuen bide administrazio guztiek eta inmigrazioa dedikatutako elkarte eta GKEek kontsulta mailan formalki parte hartzeko.

L8/2000k eta Foroa onartzen duen 14/2003k erreformatutako LO4/2000 geroztik, funtsezko aurrerapena suertatu zen elkarte autonomoen eskuartzeetan

estatuarenak soilik ziren inmigrazioari buruzko eskuduntzetan, *Inmigrazio Politikaren Kontseilu Gorena* sortzearekin. Aipatu Kontseiluak, etorkinen gizarteratze eta laneratze gaietan koordinazio organo izateaz gainera, urteko langile-kuota onartu aurretik entzuna izan beharko du.

Baina elkarte autonomoek lekualdatzeen eta baimen sistemaren kontrolari dagokien estatuaren eskuduntza eskusiboetan izan duten eraginik handiena bi autonomi eskuduntza espezifikoeetan izan da: lan ikuskatzaitzarena eta polizia autonomikoarena.

## Araubide Autonomikoa

Azken finean, autonomi elkarten benetako eskuduntza inmigrazio gaietan, etorkinen integrazioa da, eta integrazio hori sanitate, hezkuntza, gizarte segurantzaren sistema publiko eta antzeko sektoreen bitartez burutzen da, estatuak autonomi elkarteek garatu eta egikariturako duten oinarritzko legedia onartuz.

Abenduaren 18an, 3/79 Lege Organiko bidez onartutako **Euskal Herriko Autonomi Estatuak I**. Tituluan “Autonomi Elkartearen Eskuduntzak” izenburupean gai desberdinetako eskuduntza-banaketa jasotzen duen artikulua sorta bat biltzen du. Zehazki, *10. artikuluan* hainbat eskuduntza agertzen dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira, inmigrazio gaiari dagokionez, asistentzia sozialari buruzko eskuduntza –10.12 artikulua–, elkartegintza mugimendua –10.13–, kultura, –10.17 artikulua–, etxebizitza –10.31 artikulua–, erkidegoaren garapena, andere egoera, haur, gazte eta edadetuei buruzko politika –10.39 artikulua–, hezkuntza –16. artikulua–, autonomi polizia –17. artikulua– eta sanitatea –18. artikulua–. Autonomi Estatuak *9.2.d artikuluan* Euskal Autonomi Elkarteak “gizarteratzen diren gizabanakoen eta horiek osatutako taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen baldintzak sustatu eta oztupoak gainditzeko neurriak hartuko ditu”. Agindu horrek Autonomi Elkartearen esku jarri du gure lurraldean atzerriko etorkinen benetako gizarteratzea bermatuko duten beharrezko baldintzak sustatzeko behar den tresna, legeek aitortzen dituzten eskubide eta askatasunak nazionalen maila berean erabil ditzaten.

Araubidearen ikuspuntutik ezinbestez aipatu behar dira honako hauek:

- Gizarte Zerbitzuen Legea (Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/96 Legea).
- Funtzioak zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua.
- Bazterketa Sozialaren aurkako Legea (Bazterketa Sozialaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea). Azaroaren 10eko 8/00 eta 9/00 Legearen Aldarazpenak.

- Eskubide Sozialen Gutuna (Eskubide Sozialen Gutunaren abenduaren 27ko 10/2000 Legea).
- Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera (Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua). Enplegurako sustagarriak. (Justizi, Lan eta Gizarte Segurtasuneko Kontseilariaren 2001eko otsailaren 14ko Agindua, Oinarrizko Errentaren titularren eta GLLen onuradunen enplegurako sustagarriak ezartzen dituena).
- Larrialdi Sozialeko Laguntzak (Larrialdi Sozialeko Laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua).
- Gizarteratzeko Hitzarmenak (Gizarteratzeko Hitzarmenak arautzen dituen urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretua).
- Gizarteratzeko Laguntzei buruzko Aldundiaren Dekretua.
- Drogamenpekotasunen Legea (drogamenpekotasunen prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea).
- Boluntarioen Legea (Boluntarioen ekainaren 25eko 17/1998 Legea).  
Era berean, nabarmentzekoa da, berriki sortu Inmigrazio Zuzendaritzaren araubidea, sarean eta instituzio artean lan eginez, integrazio politika mamitzeko behar den araubidearen oinarriak jarri dituena:
- Laguntzen Dekretua eta Inmigrazio Zuzendaritzaren Agindua.
- Abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuz araututako Euskal Herrian diren herritar etorkinak gizarteratzeko eta parte hartzeko Foroa (2002ko urriaren 16ko EHAO) (Ejko Inmigrazio Departamentuko partaidetza organoa).

## Tokiko Araubidea

Tokiko administrazioen berariazko eskuduntzei dagokienez, haiek herritarren *lehen mailako* arreta dute beren kargura. Udal esparru honetan, **Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak** “auzokideen erkidegoaren beharrak eta nahiak asetzeko behar adina zerbitzu publiko eskaini eta era guztietako jarduerak sustatzeko” (TJOLen 25.1 artikulua) udalerrriak gaitzen dituen orotariko klausula bat ezarri du, beti ere “haien interesak kudeatzeko” eta “beren eskuduntzen esparruan”.

Eskuduntzei dagokienez, “estatuaren eta autonomi elkarleen legeriak dioen bezala” erabili beharko dira, TJOLen 25etik 28ra bitarteko artikuluetan ezarritako gaietan, horien artetik, atzerriko pertsonen eskubideetan, askatasunean eta integrazio sozialean bereziki eragina dutenak nabarmentzen ditugula :

- a) Leku publikoetako segurtasuna;
- b) Etxebizitzen sustapena eta kudeaketa;

- c) Hornidurak, hiltegiak, azokak, eta kontsumitzaileen eskubideen defentsa;
- d) Osasun publikoaren babesa;
- e) Osasunaren lehen mailako arretaren kudeaketan parte hartzea;
- f) Hilerriak eta hileta-zerbitzuak;
- g) Kultur jarduerak
- h) Irakaskuntzaren programazioan eta derrigorrezko eskolaratzea betetzeko jagoletzan parte hartzea.

Zehazki, gizarte zerbitzuen gaiko eskuduntzak Legearen 25.2.k eta 26.c.1 artikuluetan ezartzen dira. Arau horren arabera, eta atzerriko etorkinei dagokienez, gizarteratzeko tokiko egitarauak diseinatu eta garatzea justifikaturik dago, deszentralizazio printzipioan oinarrituta, eta autonomi eta estatu politika sozialekin koordinatuta.

Horrela, bada, espezifikaturiko artikuluetan, udalerriek jarduera osagarriak nahiz beste administrazio publikoek berezkoak dituztenetatik delegatutakoak egin ditzaketela adierazten da, bai eta “partikulari, hezkuntzari, kulturari, anderea sustatzeari, etxebizitzari, sanitateari eta ingurugiroa babesteari dagozkionak”.

### III. ATZERRIKO INMIGRAZIOAREN ERREALITATEA BARAKALDOKO UDALERRIAN

Gizarteratzeko Udal Plana diseinatu aurretik, Atzerriko inmigrazioaren diagnostiko integrala taiutu ahal izateko ikerketa prozesuari hasiera emateko xedez, Gizarte Zerbitzuak Arloak gure udalerriko atzerriko inmigrazioari buruzko estudio bat –Barakaldoko atzerriko inmigrazioa eta toki administrazioa– taiutzea eskatu zitzaion Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia 2 Departamentuari.

Lanak estudio-diagnostiko mota desberdinei ekin die:

- 1.- Atzerriko inmigrazioaren egoera, Barakaldon, bereziki aztertuz, atzerriko populazioaren eskolaratzea.
- 2.- Barakaldoko Udalaren eskuartze soziala zein eskuduntza markotan emango den.
- 3.- Barakaldon bizi diren atzerriko herritarrei udal arlo eta zerbitzu desberdinetatik eskaintzen ari zaien tratamenduaren egungo egoera, bai eta udal arlo eta zerbitzu horietan lanean dihardutenek dituzten hutsuneak, akatsak nahiz eskain ditzaketen jarduketa berriak. Era berean ekin zaio atzerritarrak dauden ikastegi publiko eta pribatuetan, eskolaratzean dituzten arazo edo/eta behar espezifikoak antzemateari.
- 4.- Antolaturiko kolektiboen (etorkin elkarteak, laguntzarako elkarteak, sindikatuak eta alderdi politikoak) perspektiba, hiru dimentsiotan egituratutako galde-sortaren arabera: migrazio fenomenoaren inguruko orotariko alderdiak, etorkin kolektiboentzako jarduketak edo/eta haiekiko harremanak eta Inmigrazioaren Udal Plan baterako iritziak eta proposamenak.
- 5.- Udalerriko atzerriko etorkinen tipologiak aztertzeako sakoneko galdeketa, etorkin kolektibo desberdinen bizitzeko moduei eta elkarbizitzari aurrea hartzeko. Xedea esplorazio hutsa egitea da, 6 elkarrizketa baino ez baitzaizkie egingo, dagokion metodologi atalean adieraziko diren irizpide eta aldaera desberdinak kontuan hartuz, aldeztu aurretik aukeratutako etorkin mota desberdinetako ordezkariak.

Estudio horietako bakoitzari metodologia desberdinetatik abituz heldu zaio, horietako bakoitzak jaso eta erabili nahi duen informazioaren izaera desberdina delako. Hara hemen, hurrenez hurren, zertan datzan bakoitza:

- 1.- Análisis cuantitativo-estadístico de datos (fuentes secundarias: Padrón
  1. Datuen analisi kuantitatibo-estatistikoa ( bigarren mailako iturriak: 2003ko urtarrilaren leku errolda eta atzerriko herritarren eskolaratze datuak).
- 2.- Agiri politiko, juridiko eta administratiboen analisisia (bigarren mailako iturriak).
- 3.- Elkarrizketak udal administrazioko langileei (lehen mailako iturriak).
- 4.- Elkarrizketak etorkin elkarte, GKE, alderdi politiko eta sindikatuetakordezkariei (lehen mailako iturriak).
- 5.- Etorkin motetakordezkariei sakoneko elkarrizketak (lehen mailako iturriak).

Horretatik guztiorretatik honako hau nabarmenduko dugu ondoren:

#### Diagnostikaturiko interes bereziko alderdi kuantitatiboak<sup>1</sup>:

- **Barakaldoren egungo panoraman, atzerriko inmigrazioa eskasa da eta hazkuntza berriki gertatutakoa da:**

- 2003ko urtarrilaren leku, 1.097 atzerriar zeuden erroldaturik,
- 63 nazionalitatekoak,
- Populazio osoaren %1,15a eratuz,
- Horietatik 902 herritar ez komunitarioak dira, guztirako populazioaren %0,9.

Barakaldoko atzerriko inmigrazio kasuen %70 berria da (2000.etik aurrera etorriak), baina, antzinako portugaldar eta argentinarrak sendotu egin dira, baita marokoar eta txinatarrak (horietako asko duela hamar urtetik finkatuak) eta duela hiru urte eskas, beste etorkin talde berri bat etorri da: kolonbiarrak.

- **Oro har, ez dago generoaren aldetik desberdintasunik. Barakaldon finkatutako atzerriarren erdia baino pixka bat gehiago andereak dira (%50,4).**
- **Nazionalitateei dagokienez, talde nagusiak kolonbiarrak dira (%22), portugaldarrak (%12), txinatarrak (%12) eta marokoarrak (%8).**

1.- Kontuan izan, diagnostikatutako alderdietako zenbait Ezkuartze Arlo bakoitzak zehaztutako helburuak banatu aurretik aurkeztu direla. Atal honetan, Estudio-Diagnostikoaren metodologia definitu besterik ez dugu egin, garrantzi handieneko datu estatistikokuantitatiboak nabarmenduz. Gehiago jakin nahi izatera, jo [www.barakaldo.org](http://www.barakaldo.org) webera, han aurki daiteke-eta Estudio-Diagnostiko osoa.

Duela zazpi urte, talde nagusia europarrena zen, haiek ziren atzerritar guztien ia erdia. 2003an, europarrak apenas eusten diote bigarren talde ugariena izateari, latindar-amerikarren oso azpitik, eta asiarrak eta afrikarrak hurbil-hurbil dituztela. Afrikarrak ugaritu egin diren arren, ez dute atzerritarren kolektiboaren guztirakoan proportzioa aldatu.

Barakaldon bizi diren atzerritarren jatorri komunitario eta ez komunitarioari begiratu, inmigrazio komunitarioa 1996an %40 izatetik (portugaldarrak, batez ere) 2003an %18 soilik izatera igaro direla ikus daiteke.

Barakaldon gehien hazi den komunitatea, kolonbiarrena izan da, lehenengo tokian daude, 238 pertsonekin, Barakaldon bizi diren atzerritarren guztirakoaren %22. Portugaldarrak kolonia garrantzitsua dute Barakaldon, nahiz eta garrantzi erlatibo edo portzentajezkoa galdu egin duten. Hala ere, antzinasuna eta sustriak dituzte udalerrian, ez ordea, kolonbiarrek, kolonia hori benetan berria baita. Komunitate txinatarrak bolumenta eta pisua hartu du Barakaldon, azken urteotan; bera da atzerritarren hirugarren kolektiborik ugariena.

Aipamen berezia egin behar diogu Ekuadorretik etorritako taldeari, azken urteotan Espainian eta Euskal Herri osoan bolumen handiko inmigratio-korrontea sortu baldin badute ere, Barakaldon espero zena baino proportzio txikiagoa finkatu baita:

1996		2003	
Nazionalitatea	Zk.º	Nazionalitatea	Zk.
Portugal	79	Kolonia	238
Maroko	29	Portugal	131
Frantzia	23	Txina	128
Argentina	21	Maroko	90
Txina	16	Ekuador	52
Kuba	17	Argentina	47
Kolonia	15	Kuba	39
E.E.B.B.	13	Gainontzekoak	372
Gainontzekoak	96		
<b>GUZTIRA</b>	<b>312</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.097</b>

ITURRIAK: erroldak (EUSTAT eta Barakaldoko Udala)

- **Barakaldon bizi diren herritar etorkinen %15 da soilik da ekonomikoki ez aktiboa adinagatik (adin txikikoak eta erretiratuak) barakaldarren guztirakoaren %30en aldean.**

Barakaldon, orotariko populazioaren %30 da ekonomikoki ez aktiboa adinagatik (adin txikikoak eta erretiratuak), eta etorkinen artean, ordea, proportzio hori erdira jaisten da (%15). Atzerritarren populazioaren adin egituran

autoaskitza aukerak gailentzen dira, eta horrenbestez, txikia da mendeko populazioa eta baliabide sozialak behar dituztenena (sanitatea, hezkuntza, egoitzak, haurtzaindegiak, etab.)

- **Etorkin atzerritarren hirutik batek maila ertaineko nahiz gorenko ikasketak ditu.**

Etorkin atzerritarren ia erdiak ditu lehen mailako ikasketak (%47), %32k erdi eta goren mailako ikasketak, %13k du bigarren mailako ikasketaren bat eta %8 da alfabetatugabea edota ikasketarik gabea. Atzerritarren hezkuntza mailak, ordea, zerikusi estua du nazionalitatearekin eta egotaldiaren antzinatekin, oso hezkuntza profil desberdinak gertatzen direla, batzuetan eta besteetan. Berriki etorritako etorkinek lehenagotik etorritakoena baino askozaz hezkuntza maila handiagoa dute. Bestetik, kolonbiarrek portugaldarrek eta txinatarrek eta marokoarrek baino goragoko hezkuntza maila dute.

- **Etorkin atzerritarrak ez daude leku bakar batean pilatuak, Barakaldon.**

Barakaldoko puntu zehatzetan talde etnikoen pilaketak oso kontzentrazio txikian gertatzen dira, ezin esan daiteke, horrenbestez, enklabe etnikoak daudenik. Izaera etnikoko kontzentrazio badi, bolumena oso txikia da, ia familiarra.

Barakaldok ez du inmigrazio-presio seriorik, eta izatez, administrazio-sekzio bakoitzean duen atzerritar proportzioa benetan txikia da, atzerritarren populazioak ez baitu %3,6 gainditzen, batean ere ez, eta asko dira, ordea, atzerritarren %0,5 apenas gainditzen dutenak.

- **Barakaldon finkatutako %57 zuzenean dator bere jatorrizko herrialdetik.**

Higikortasun patrioiari dagokionez (Barakaldora etorri aurretik migrazio-rik badenentz), esan daiteke etorkinen %57 atzerritik datorrela (normalean bere herrialdetik), eta %40 beste udalerrri espainiar batetik. Horrek esan nahi du, Barakaldoko etorkinen %40 alde aurretik Espainiako beste leku batean egon dela: %24 beste udalerrri bizkaitar batetik dator, eta %16 Bizkaikoa ez den beste udalerrri batetik.

- **Barakaldon, datorren urteotan populazio atzerritarrak hazteko joera erakusten du, zeren inmigrazioaren %70 azken hiru urteotan heldu da.**

Barakaldon erroldaturik dauden etorkin atzerritarren bolumena hazteak eta udalerriko bertako herritarren pixkanakako jaitsierak guztirako populazio-arekiko atzerritarren proportzioa atzerritarren kopuruaren hazkundera bera baino gehiago nabarmentzea ekarri du. Izatez, 1999tik 2003ra igarotako 4 urteetan, Barakaldoko atzerritarren proportzioa ia hirukoiztu egin da.

Atzerritarren inmigrazioa Barakaldon eskasa da, guztirako populazioarekiko proportzioa txikia da; udalerrri osoan sakabanatua dago, pilaketa garrantzitsurik gabea; ez dago enklabe etnikorik ezta horretarako joerarik ere. Horrek guztiak oso neurrizko egoera erakusten du, udalerrirako.

Hala eta guztiz ere, Espainiako inmigratio atzerritarren egoitza ereduak ez ezik azken hiru urteotan udalerrira etorritakoen bilakaerak ere datozen urteotan Barakaldoko atzerritarren populazioa nabarmen haziko dela pentsarazten digu.

## IV. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

2003ko abenduaren 9ko Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioz onartutako **Inmigrazioaren Euskal Planaren** ikuspegitik garatuko da **Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Plana**, eta horrenbestez, aipatu plan marko horretara bildutako kontzeptuak hartuko ditugu oinarritzat, tokiko errealitatera egokitu ondoren. Hara zer azpimarratuko dugun:

### 1.1) Inmigrazio kontzeptua

- **Barakaldoko Inmigrazio Planaren abiapuntua inmigrazioa fenomeno baikortzat eta beharrezkotzat jotzea da.** Inmigrazioak modu garrantzitsuan laguntzen du gure gizarteak aberasten, hala alor ekonomikoan nola kulturean. Inmigrazioa eta horrek gure gizarteari dakarkion aberastasuna modernizazio faktore ez ezik europartze eta dinamismo faktore ere bada, gure inguruko beste herrialdeetako garatutako gizarte moderno eta anitzetara hurbiltzen gaituena.
- **Inmigrazioa prozesu sozial pluralista baten parte ez ezik bizitza sozialaren atal desberdinak aberasten dituen prozesu baten parte ere da, eta ez da modu murriztaile batean hauteman behar, lan fenomeno hertsia bailitzan.** Inmigrazioari ez zaio perspektiba instrumental soiletik begiratu behar, lan eskasiaren beharrezko osagarri bat bailitzan. Ikuspegi hori murriztailea izateaz gainera, etorkizunean ezadostasun sozial larriak ekarriko lituzke, elkarbizitza sozial zuzena eta harmonikoa nahi izanez gero.
- **Inmigrazioa gizarte modernoetako egitura-fenomeno bat da.** Inmigrazioa fenomeno dinamikoa eta etengabea da, eta horregatik egokitu behar dute politika publikoek ezaugarri horietara. Sektore publikoak eta gizarteak, oro har, beren giza eta demografi oinarriaren behin betiko hazkundetzat ez ezik higikortasun sozial handiagoaren adierazpentzat ere jo behar dute.

### 1.2) Integrazio kontzeptua

- **Integrazioa bi noranzkoko kontzeptua da,** inmigratutako populazioaren eta jatorrizko populazioaren artean elkarrekiko egokitzapeneko prozesu dinamikoa eskatzen duena. Aldi berean, egokitzapen multilateralala gertatzen da, inmigrazioaren eta higikortasun sozialaren izaera iraunkor eta polifazetikoak doitze eta oreka prozesu anitz exijitzen ditu, pertsona guztiei berez dagozkigun eskubideak benetan aintzat hartuko dituzten prozesuak.

- **Kulturartekotasuna integrazioarako ezinbesteko bidea da.** Integrazioa ikuspuntu kulturaletik nahiz politikotik begiratuta ez da nahitaez identitate bateratze bat, ez eta, inondik ere, beste kulturak gizarte hartzailearenak asimilatzea. Integrazioa modu aurreratuan ulertuta, identitate desberdinak berdintasunean libre garatzea da, bai eta euren arteko elkarrekintza eta erlazioa ere. Kulturartekotasunak ez dakar identitate mistoa eraikitzea edota norberaren identitateak kanpotik etorritakoa irenstea, baizik eta identitate konplexu eta konposatuak sortzea, guztion onura denon nortasuna libreki garatzearekin uztartzea ahalbidetzeko.
- **Integrazioa etorkinak gizarte hartzailearen kulturetan erabat eta aske txertatzeko aukera da.** Horretarako, politika publikoek inmigratzen dutenei politika horietaz baliatzeko eskubidea bermatu behar diete, baina beti ere libreki atxikitzearen ondorioz, eta ez asimilazio prozesu baten ondorioz.
- **Integrazioa eta irregulartasunaren kategoria juridikoa bateraezinak dira.** Irregulartasun egoeraren kategoria juridikoa egiturazko oztopoa da gizarte integratua erdiesteko.
- **Integrazioak herritartasuna onartzea eskatzen du.** Benetako integrazioa ez da lortuko gutxieneko zerbitzuak ziurtatzen, baizik eta eskubideak onartuaz, betebeharrak norberaren bizkarrean hartuaz eta etorkinak erkidego hartzailearen politikan sartuaz. Zentzu horretan, gizarte integratua erdietsiko bada, ez dira soilik kulturarteko politikak eta alor zehatz sozial eta ekonomikoetan zerbitzugintza jarduketak elkartu behar. Erabateko integrazioak atzeritik datorren pertsona komunitatea politikoa txertatzeko aukera egotea exijitzen du, eta horretarako herritar estatutu berria aitortu behar zaio, nazionalitatearen osagaitik bereizia.
- **Integrazioa erantzukizun sozialez onartu behar da.** Behar beharrezkoa da integrazio sozial egokiaren kudeaketa egokiarekin zerikusia duten gai guztiek adostasun zabala izatea eta indar politikoen, sektore sozialen... interes partikularrak gainditzea. Integrazioa xede duen politika eztabaidatu eta kuestionatu egin behar da, baina guztion onurak helburu nagusia epe luzearako plangintza izango duen erantzukizun partekatua ez ezik etorkin atzeritarrak –eskubide osoko herritar gisa hartuta– ardatz izango dituen kudeaketa ere exijitzen du.

### 1.3) Herritartasun kontzeptua

- **Egoitza da herritartasun berria eskuratzeko exijitutako lotura.** Herritartasun kontzeptu berria zentzu klasikoan erabili izan den nazionaltasunetik bereizi egin behar da, bai eta beste edozein identitate-elementutatik ere, izatezko egoitzan soilik oinarritzeko.

- **Herritartasun inklusiboak estatutu uniformeak inplikatzeko du haren titular diren guzientzat.** Zentzu horretan, hala pertsona nazionalak nola atzerritarrak beharrezko giza-eskubideen gutxieneko eremuan erabat berdinduta daude: eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, bai eta integrazio erabatekoa eta eraginkorra izateko betebeharrak ere.
- **Herritartasun inklusiboak alde batera uzten du erregulartasun eta irregulartasun arteko administrazio-bereizketa.** Atzerritarren Zuzenbidearen arabera legezko nahiz administraziozko baimenik ez izateak ez du indargabetzen ezta aldarazten haren funtsezko estatutua, funtzio integratzailea ziurtatuz.
- **Herritartasun inklusiboak sektore publikoaren erantzukizuna eskatzen du integrazio prozesuan.** Herritartasuna eskuratzeko gutxieneko eskubideak bermatzeko behar diren prestazioen kudeaketa aparatu publikoari dagokio.
- **Herritartasun inklusiboak partaidetza politikoaren bitartez sakontze demokratikora iristeko tresna bat da.** Integrazio politiketan hainbat sektore sozialek parte hartzeak ez du ekarri behar estatu sozialak eskainitako bermeen urritzea. Aitzitik, herritartasun inklusiboak zuzenbideko estatu sozialaren demokratizazioa inplikatzeko du, gaiari buruzko erabaki politikoetan partaidetza handiagoa eta erantzukizun partekatua aldarrikatzen duena. Horrela, partaidetza soziala batez ere erabakien eta errebindikazioen eremuan kokatu behar da, eta kudeaketaren eremua sektore publikoaren esku utzi.
- **Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun irizpide dakar.** Zentzu horretan, eskubide berdintasuna ez da pertsona etorkin eta nazionalentzako soilik aldarrikatzen, baizik eta nazionalizatu gabeko herritarren barne eremurako eta genero arteko berdintasunerako, logika berari eutsiaz.

## V. PLANAREN PRINTZIO GIDARIAK

2003ko abenduaren 9an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako Inmigrazioaren Euskal Planaren ikuspegitik garatuko da, bada, Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Plana, plan marko horretan bildutakoetara joko dugu, beraz.

### Funtsezko printzipio gidariak

Funtsezko Printzipio Gidariak dira haren edukien berri ematen duten irizpide politiko oinarritzakoak eta beharrezkoak eta berez aski direnak Planaren helburu nagusia erdiesteko. Funtsezkoak dira Planaren edukiari zuzenean hel-tzen diotelako, eta aurrean azaldutako premisa ideologikoetatik ondorioztatzen direlako. Ez dira antolakuntzazko tresna-irizpideak, baizik eta Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planaren oinarri ideologikoen eta helburu nagusiaren ezinbesteko ondorioak.

Horrela bada, integrazioaren helburu nagusia lortzeko, beharrezkoak eta aski dira honako funtsezko printzipio gidariak:

#### Berdintasuna

- Berdintasun printzipioak giza eskubideen titularitatea ahalik eta zabalena izatea dakar, udal eremuak berezko dituen eskuduntzen markoan. Horrek ez dio soilik eskubide zibilei eragiten baizik eta herrian bizi diren guztienak diren eskubide sozialei, ekonomikoei eta kulturei, nazionalitatea gorabehera, bai eta eskubide politikoei ere, autonomi ordenamendu juridikoan txerta daitezzen neurrian. Era berean, betebeharrakiko berdintasuna ere dakar, inolako desberdintasunik ez egiteko.
- Berdintasunak, era berean, zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko ba-tean onartu ohi dituzten eskubideek bermatutako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera berak izatea dakar, normalizazio printzipioaren bitartez, orotara zabal daitezkeen beharretarako, eta espezializaziokoak, etorkinen kolektiboak dituen berariazko beharretarako.
- Berdintasun printzipioa guztiontzat da, gutxieneko estaldura eremuan nazionalak eta atzerritar egoiliarak ez ezik, atzerritarren multzoa osatzen duten pertsonak ere berdintzen dituen neurrian. Printzipio berak andere

eta gizonen arteko berdintasuna dakar, eta ikuspegi egokia eskatzen du, generoari dagokionez.

- Berdintasun printzipioa ez da desberdintasun eskubidearen kaltetan ebazten, baizik eta hura indartzeko. Balio txertatua ez da berdintasun formal soila, baizik eta gure ordenamendu juridikoak aipatzen duen berdintasun material bera. Horrek legitimatzen du egoera desberdinetarako tratu bereiztua, emaitza erreal eta eraginkorra, hala maila indibidualean nola kolektiboan, ber-bera izan dadin.

### **Erantzukizun publikoa**

- Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Plana integrazioa lortzea botere publikoen erantzukizuna delakoa oinarri hartuta eraikiko da. Ikuspegi hori eskubide eta betebeharren berdintasun printzipioarekin uztartzen da, atzerritarrak erkidego politiko hartzailean txertatuz soilik lor baitaiteke integrazioa, eta horrek nahiaez eskatzen du erkidego beraren erantzukizun kolektiboa gutxieneko berdintasuna gauzatzeko. Era berean, erantzukizun kolektiboa etorkinen kolektibora zabaltzen da, eta neurri berean zabaltzen ere kolektibo autoktonora, elkarrekiko aipatu integrazio horren gutxieneko parametroak lortzeko.
- Erantzukizun publikoaren printzipioak berdintasunari tresnak dakartzkio gauzatu ahal izateko, baina aldi berean Planaren beraren funtsezko elementua da, jarrera publiko integratzailea islatzen duen neurrian, orotarako beharretarako zerbitzugintzan normalizazioaren printzipioaren bitartez gauzatuko dena, haietaz baliatuko den pertsonaren nazionalitatea nahiz egoera juridikoa zein diren kontutan hartu gabe.
- Botere publikoek etorkinen kolektiboaren integrazioan duten erantzukizunak ez du agortzen gaiarekiko eskuartzea, printzipio horrek beti izan behar baitu lagun partaidetza soziala. Horrenbestez, botere publikoek parte hartzeko ahalik eta espaziorik zabalenak bermatu behar dituzte, eskubideak gutxieneko mailan eta modu normalduan bermatuz.
- Erantzukizun publikoaren printzipiotik eratorri dira zuzenean funtsezko printzipio gidariak, eta horien arabera antolatuko dira sektore publikoaren jarduna egituratzeko moduak eta bideak.

### **Partaidetza soziala**

- Partaidetza sozialaren printzipioak berdintasunari tresna hornitzen dio hura bidera dadin, baina aldi berean, Planaren beraren elementu funtsezkoa da, integrazio prozesuaren ezinbesteko bide bat eransten diolako integrazio prozesuari. Erantzukizun publikoa eskuartze instituzional derrigorrezkoaren ondorioa

- baldin bada, partaidetza etorkinen, haiek osatzen dituzten kolektiboen eta harrera egin dien gizartearen beraren eskura dagoen ahalmena izango da.
- Era berean, berdintasun printzipioaren oinarria da politika publikoak haien hartzaile direnekin taiutu eta kudeatu beharra. Marko horretan, finkatutako etorkinen kolektiboak dira partaidetzaren subjektu printzipalak, nahiz eta eskubide hori gizarte osoak aitortua duen eskubidea den.
  - Partaidetza printzipioa gure sistema politiko eta instituzionalaren sakontze demokratikoa da. Gizarte demokratiko aurreratuak ahalik eta partaidetza mailarik handiena izan behar du gai publikoetan, gizartean partaidetza kultura sortuz, erabakietan eta kudeaketan erantzukizunaren aldeko ideiak eta solidaritate aktiboaren ideiak indartuko dituen kultura, alegia.
  - Partaidetza printzipioa ez da soilik eskubide politikoen eremuan proiektatzen, baizik eta, batez ere, berdintasunaren printzipioak itzala ematen duen eremuan. Eta bereziki, partaidetzak kulturartekotasunaren eremuan ematen du itzalik zabalena.
  - Barakaldoko Inmigrazio Planak partaidetzari buruzko ideia zabal eta polifazetikoa txertatu du, barne duena, hala bide organikotik, funtzionaletik nahiz kooperaziozkoetik, politika publikoan partehartzea nola etorkinak beraiek, ordezkatzeko dituzten taldeen bitartez edota harrerako gizarteko sektoreen bidez, jabeak iristea, integrazioaren helburu behinena betetzeko.
  - Atzerriko etorkinen integrazio prozesuan, harrerako gizartearen partehartzeak gauzatzeko espazio aproposa aurkitzen du boluntario kritikoetan oinarriturik dauden gizarte-mugimenduetan. Boluntario kritikoak funtsezko elementuak dira partaidetza sozial eraginkorra ahalbidetzeko bai eta haren tresna benetakoak.

## **Printzipio gidari eragingarriak**

Antolaketa irizpide instrumentalak dira, aldi berean, aurrean azaldutako funtsezko printzipio gidariak aplikatzeak exijitutakoaren mendean daudenak. Horregatik, Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planaren printzipio gidari eragingarriak berdintasunaren eta erantzukizun publikoaren funtsezko printzipioen beharrezko ondorio dira, eta horrenbestez, Planean bertan inplikaturako sektore publikoaren antolaketa moduari lotzen zaizkio, oinarrian.

Hara zein diren:

### **Integraltasuna**

Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planak gizarte barakaldarrean inmigrazioaren fenomeno osoa antolatu nahi du, etorkinak bete-betean integra

daitezen. Horregatik, eta Inmigrazioaren Euskal Politikarekin bat eginez, zeharkakotasuneko eta multilateralitateko bokazioz eratu da, eta udalerrian eta EAEn diharduen sektore publiko osoari eragiten dio eta sektore osoa konprometitzen du. Integrazioaren arautze nahiz kudeatze partzialak ala zatikatuak hura benetan gauzatzea oztopatzen du.

### **Prebenzioa**

Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planak ez ditu soilik politika publikoak modu ordenatu eta sistematikoan antolatuko. Planaren bokazioa plangintza egitea da, hala errealitate sozialean nola planaren beraren kudeaketan sor daitezkeen eragin perbertsoei edota disfuntzioei aurea hartzea eta ekiditea.

### **Normalizazioa eta unibertsalitatea**

Berdintasun eta erantzukizun publikoaren funtsezko printzipioak eratzek etorkinen kolektiboa integratu ahal izateko beharrezkoak diren prestazio eta zerbitzuen multzoa ahalik eta mailarik gorenean normalizatzea eskatzen du. Orokortu daitezkeen beharrei dagokienez, normalizazioa ezinbesteko jarduketa-ardatz bihurtzen da Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planean. Prestazioei dagozkien jarduketa publiko gehienetarako aldarrikatu ohi den errotikako normalizazio hori espezializazioko printzipio subsidiarioaz osatu behar da orokortu ezin daitezkeen demostraturiko behar espezifikoak dituzten eta integrazioarako beharrezko konpentsazioak dakartzaten kasuetarako. Edonola ere, espezializazioa normalizazioaren lagungarria da, eta era berean, erantzukizun publikoaren eremua du markotzat. Horrexegatik, abiapuntua kultur desberdintasunak, etnikoak nahiz erlijiozkoak onartzea izanik ere, behar-beharrezkoa da aukera eta tratu berdintasunaren garrantzia nabarmentzea, etorkinei inolako antolaketa-desberdintasunik gabeko arreta emateko, hau da, gainerako herritarrei ematen zaien adinakoa.

### **Koordinazioa eta zeharkakotasuna**

Kontuan hartu beharko da udal jarduketaren arlo guztien eta bakoitzaren partehartzea, iritsi nahi diren helburuak garatzeko inplikaturik dauden departamentu guztiena, alegia. Etxebizitza, enplegu, sanitate, hezkuntza, gizarte zerbitzu eta gainerako arloen jarduketa koordinatua izatea sustatu behar da, hau da, udal politika globala eta zeharkakoa, etorkinen integrazio erabatekoa ahalbidetzeko. Koordinazio eta zeharkakotasun exijentziazko planteamendu berbera ezar daiteke udalaz kanpoko instantzietan, hala publikoetan nola pribatuetan, eta bereziki, administrazio zentral eta autonomikoetan. Herri administrazioen arteko koordinazio printzipioak garrantzi berezia du, gai honetako eskuduntzak batera gertatzen direlako haietan.

### **Ebaluazioa**

Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planak tresna malgua izan nahi du. Inmigrazio prozesua egitate dinamiko eta aldakortzat joa izan bada, Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planak bere ezaugarrien artean etengabe egokitu eta hobetzeko malgutasun dosi egokia txertatu beharko du. Ondore horietarako, organo erantzulea eta prozedura egokiak eratu behar dira, Plana betetzen den eta egokia den etengabe ebaluatuko bada.

## VI. PLANAREN DEFINIZIOA ETA XEDEA

Planak **erreferentzia estrategikoa** izan behar du aurreikuspen desberdinak diseinatzeko, hots, zeharkakotasunetik herritar guztientzat lan koordinatua eta eraginkorra ahalbidetuko duen testuingurua.

Horregatik, hartan parte hartuko duten erakunde eta instituzio desberdinen **adostasun**-oinarri batetik abiatu behar da.

Planaren **oinarrizko helburua**, beraz, etorkin atzerritarrak Barakaldoko udalerrian erabat integratu daitezen bermatzea izango da, zeharkako eta departamentu arteko izaera duten jarduketan bitartez, Barakaldoko udalerrian atzerriko etorkinei harrera egitea, gizarteratzea, finkatzea eta eguneroko bizitza gainerako herritarrekin batera normaltasunez bizitzea ahalbidetuko duten jarduketak.

Zentzu horretan, **Barakaldoko Inmigrazioaren Tokiko Planaren orotariko helburuak**, aurreikusita dauden eskuartze arlo desberdinen arabera daude definituak, eta honako hauek **izango dira**:

- 1.- Pertsona guztien eskubide eta betebeharrak berdintzea eta aukera berdintasunaren printzipio bermatzea, bizitza sozial barakaldarraren alor guztietan.
- 2.- Eskuduntza duen agintaritzarekin batera elkarlanean, atzerriko etorkinek sanitate zerbitzuak nazionalen baldintza beretan balia ditzaten erraztasunak ematea.
- 3.- Eskuduntza duen administrazioarekin koordinatuz, atzerriko etorkinek etxebizitzak eskuratzeko nazionalek dituzten aukera berak izan ditzaten erraztasunak ematea.
- 4.- Atzerriko etorkinak hezkuntza sistemara sartzeko aukerak bermatzea eta sistemaren barruan sustatzea.
- 5.- Atzerriko etorkinen kolektiboaren eskeak eta beharrak bideratzea ahalbidetuko duten partaidetza eta elkarrizketa bideak mesedetzea, bizitza sozial barakaldarrean antolatzeke eta parte hartzeke behar dituzten baliabideak emanez.
- 6.- Herritarren elkarbizitza sustatzea, lehentasuna emanez, elkarkidetasunaren, tolerantziaren, elkarren arteko ezagutzaren eta aniztasunaren balore demokratikoei lehentasuna emanez.
- 7.- Etorikinen lan merkaturatzea eta heziketa profesionalerako aukerak sustatzea eta bermatzea nazionalek dituzten baldintza beretan.

- 8.- Migrazio hartzaile eta sortzaile diren herrialdeen artean kooperazio eta lankidetzaren politika berriak bultzatzea, horretarako garapen bektore diren atzerriko etorkinen potentziala aprobetxatuz.
- 9.- Udal sail desberdinak koordinatzea, atzerriko etorkinen integrazioa zuzendutako jarduketara guztiei izaera globala erantsiaz.
- 10.- Barakaldoko udalerriko inmigrazioaren errealitate kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutzea.

Udal planaren **eremua** Barakaldoko herria eta beratan txertatutako gune guztiak izango dira, eta horrenbestez, funtsean, lehen lerroko politika sozialarekin (gizarte zerbitzu, sanitate, hezkuntza eta kulturako lehen mailako arretarekin) eta orotariko garapeneko udal politikarekin lotutako plan baten aurrean gaude.

Planaren eta hari lotutako ekintzen **indarraldia** hiru urteko izango da, hala baitago jasota, hori ere, Inmigrazioaren Euskal Planean eta Udal Planaren marko eragilean. 2004tik 2006rako indarraldia prozesu desberdinetan egingo da, urtero garatuz eta ebaluatuz, ezarritako helburuen eta dagozkien neurrien arabera.

## VII. ESKUARTZEKO ARLOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

### A. FUNTZEZKO ARLOAK

Funtsezko arauak helburu integratzailea zuzenean ziurtatuko duten jarraibide eta neurriak txertatuko dituzte. Hala etorkinen kolektiboa nola herrialde hartzailea dira alor hauetan begietsitako neurrien funtsezko jaso-tzaileak. Funtsezko arloak, funtsean, berdintasun printzipiotik eratorri dira, eta neurri handi batean, eskubideak eta betebeharrak onartzearen ondorioz antolatu dira.

#### **BERME JURIDIKOAK, GIZARTERATZEA ETA BALIABIDE SOZIALAK**

Atzerriko etorkinen eskubide zibilak erabat ziurtatuko badira, bera-riazko berme juridikoak beharko dira, gure ordenamenduan duten egoera juridiko berezia kontutan hartuta. Arlo honetan egingo den eskuartzearen bitartez, atzeritarrei buruzko estatuko araubideak nazionala ez denaren egoera juridikoan eta haren eskubide funtsezkoenetan eragindako ondorioak leuntzeko ahalegina egingo da. Aldi berean, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen alorrean, gizarte baliabideen arlo bat eratuko da, haren bitartez, gure gizartean dauzkagun estaldura sozialeko baliabideen multzoa etorkinek libre eta osorik eskuratu ditzaten bermatzeko. Arlo honetan du adierazpenik argiena deszentralizazio printzipioak, harrerak eta gizarte gai desberdinetako oinarrizko orientazioak Barakaldoko udalerrian diren oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez egiten delako.

#### **Kontuan hartu beharreko diagnostikatuta alderdiak:**

- Administrazio egoera irregularrean dauden pertsonen presentzia.
- Gero eta familia finkapen gehiago, banakako finkapenen kalterako.
- Barakaldoko udal zerbitzuak orotarikoak eta normalizatuak dira. Marko horretan bermatuko da etorkinen kolektiboak zerbitzuak eskuratzea.
- Ez dago, beraz, inolako udal baliabide espezializaturik etorkinei harrera egin eta arreta emateko.

## **I OROTARIKO HELBURUA**

*Pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak bermatzea eta bizitza sozial barakaldarrean aukera berdintasunaren printzipioa bermatzea.*

### **Berariazko helburua**

- 1.1. Udalerrian bizi diren atzerriko etorkinei dituzten eskubide eta betebeharrak buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea, eta udal zerbitzuak normal eskura ditzaten sustatzea.

### **Neurriak**

- 1.1.1. Udalerriko atzerriko etorkinei zuzendutako informazio eta heziketa saioak garatzea.
- 1.1.2. Udalerrian dauden baliabideei buruzko orientazio eta informazio mekanismoak diseinatu eta egikaritzea .

### **Inmigrazioko teknikaria.**

- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua .

### **Berariazko helburua**

- 1.2. Lehenengo harrerarako zerbitzua finkatutako UDAL SAREAREN bitartez bermatzea

### **Neurriak**

- 1.2.1. Udal arlo guztien arteko koordinazio bideak ezartzea, indar berezia emanaz Gizarte Laneko Atalei eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari.
- 1.2.2. Udalerriko erakunde sozialekin koordinazio bideak ezartzea.
- 1.2.3. EAEn atzerriko etorkinei arreta juridiko soziala emateko zerbitzua HELDU sarea eta hark etorkinentzako aholkularitza juridikoan duen egiteko behinena indartzea.
- 1.2.4. Gure udalerrian etorkinak erroldatzeko eskubidea sustatu eta mesedetzea.

### **Inmigrazioko teknikaria.**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua

- HELDU
- BILTZEN
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.

### **Berariazko helburua**

- 1.3. Udalerriko baliabide sozialak bertan bizi diren atzerriko herritar etorkinen ezaugarri eta beharretara egokitzeko neurriak sustatzea.

### **Neurriak**

- 1.3.1. Integrazio eta laguntza sozialeko programei lehentasuna ematea, etorkinekin eskuartzeko, modu ez sektorialean.
- 1.3.2. Konpentsaziozko jarduerak sustatzea, udal baliabideak normalizatzeko eta horiezaz baliatzen diren Barakaldon bizi diren atzerriar etorkinak ez diskriminatzeko.
- 1.3.3. Herritarren parte hartzeko foroetan etorkin atzerriarrak sartzeko jarduerak diseinatzea.
- 1.3.4. Gutxiengo etnikoetakoak direlako edo/eta herrian bizi diren errodaturik ez dauden etorkin irregularren gisan “ikustezin” egoeran daudelako, sozialki oso egoera urrakorretan dauden etorkinak biltzen diren tokietan landa-lana egitea eta beren beharrak eta eskeak bideratzea.
- 1.3.5. BILTZEN-Bitartekartiza eta Kulturarteko Hezkuntzan, Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroarekin lankidetzeta eta koordinazio lana egitea.
- 1.3.6. Udaleko Anderea Arloarekin lankidetzeta berezia, Barakaldoko Aukera Berdintasunaren Planean.

### **Inmigrazioko teknikaria.**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua

## **OSASUN ARLOA**

Normalizazio printzipioaren markoaren esparruan, atzerriko etorkinek osasunerako duten eskubidea erabat beteko dela ziurtatzeko eskuartzeak arlo honetara sartuko dira, oinarrizko eskubide soziala delako. Beste administrazio batzuekin batera egingo da lana, etorkinen osasun-estaldura bermatzeko. Erakunde eskuduna ez den arren, Udalak, gutxienez, herritar horiek lehen

mailako arreta gainerako herritarren baldintza beretan edukitzea sustatuko du, bai eta osasunerako egitarauak bultzatuko ere, prebentzioaren eta heziketaren eremuan.

**Aldez aurretik diagnostikatutako kontuan hartu beharreko alderdiak:**

- Etorkinak osasun-prestazioetara heltzeko zailtasunak.
- Migrazio fenomenoak etorkinen kolektiboaren adimenaren osasunean duen eragina.
- Gaixotasun tropikaletatik eratorritako sintomak interpretatzeko arazoak.
- Profesionalek kultur arauak ulertzeko dituzten zailtasunak.

## **2 OROTARIKO HELBURUA**

*Atzerriko etorkinak osasun-zerbitzuetara helduko direla bermatzeko, Osakidetzari laguntzea.*

### **Berariazko helburua**

- 2.1. **Gainerako administrazio publikoekin jarduketak koordinatzea, gainontzeko herritarrek duten estaldura eta kalitate berarekin sanitatea helduko dutela bermatzeko.**

### **Neurriak**

- 2.1.1. **Administrazio desberdinekin batera koordinazio mekanismoak diseinatzea, etorkinei osasun-asistentzia bermatzeko.**
- 2.1.2. **Ekimen sozialeko erakundeekin lankidetzan aritzeko mekanismoak diseinatzea.**
- 2.1.3. **Gizarte Laneko Unitateen eta lehen mailako arreta zerbitzuen arteko lankidetzaren mekanismoak diseinatzea.**

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Ingurugiroa, Sanitatea eta Kontsumoa arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.
- Osakidetza.

### **Berariazko helburua**

- 2.2. **Etorkinen kolektibo desberdinek osasun alorrean dituzten beharrak aztertzeko administrazioekin lanean jardun.**

## **Neurriak**

- 2.2.1. Udal eta populazio erregistroak eguneratu eta benetakoak izatea sustatu.
- 2.2.2. Unibertsitateekin eta ikerkuntzaren alorreko erakunde espezializatuekin lan egiteko mekanismoak diseinatu.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Erregistro eta Estatistika arloa.
- Udal Inmigrazio Taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, UNED eta Deustuko unibertsitatea.

## **Berriazko helburua**

- 2.3. **Migrazioaren errealitate berria kontuan hartuko duten hezkuntza eta prebentzio udal egitarauak bultzatu.**

## **Neurriak**

- 2.3.1. Etorkinaren osasuna kontuan hartuko duten ekimenei lehentasuna ematea, diziplinarteko ikuspuntu dinamikoa eta malgua izanik eta profesional sanitario eta ez sanitarioen arteko komunikazioa bultzatuaz, eta prebentziozko eta osasuna sustatzeko jarduerak indartuaz.
- 2.3.2. Etorkinen osasuna areago ikuskatzeko eta hobeto planifikatzeko bideak sustatzea, etorkinen eta hartzaileen hezkuntza eta informazioa hobetuz.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Ingurugiroa, Sanitatea eta Kontsumoa arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.

## **ETXEBIZITZA ARLOA**

Etxebizitza arloak atzerriko etorkinek etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko eskuartzeak burutuko ditu, oinarrizko eskubide soziala baita hura. Etorkinen kolektiboa etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituztenetako bat da, eta horregatik Udalak etxebizitza-egitarauak sustatu beharko ditu,

beren beharrak kontuan hartu eta etorkin eta gutxiengo etnikoen egoitzazko nahitaezko banantzeak ekiditeko.

**Diagnostikaturiko kontuan hartu beharreko alderdiak:**

- Etorkinek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak eta etxebizitzak errentan hartzeko bizi dituzten diskriminazio egoerak.
- Udalerriak etxebizitza sozial gutxi.
- Etxebizitzak garestiak dira, eta errentan hartzeko etxebizitza gutxi, merkatuan.
- Ez dago udalerrian finkatze araurik zonaldeka pilaturik.

### **3 OROTARIKO HELBURUA**

*Eskuduntza duen administrazioarekin koordinatuz, atzerriko etorkinek bertakoen baldintza beretan etxebizitza eskuratzeari erraztu.*

#### **Berariazko helburua**

- 3.1. Ohiko etxebizitzetarako zerbitzu publikoek ezarritako laguntzak baldintza beretan eskuratzeko ekimenak garatzea.

#### **Neurriak**

- 3.1.1. Etxebizitzari buruzko udal araubidea migrazio errealitatera egokitzea, berdintasunaren printzipioa abiapuntu hartuta, eta kontentsaziozko irizpideak ezarriz.
- 3.1.2. Informazio eta orientazio bideak taitutzea, ohiko etxebizitzetarako udal baliabideak eskuratzeko aukera izateko.
- 3.1.3. Ohiko etxebizitzaren gaiaren alorrean lanean diharduten udalerriko erakunde sozialekin koordinatzea.

#### **Agenteak eta bitartekariak**

- Eretza (herri erakundea).
- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzua.
- Barakaldoko Udala Ondarea eta Hirigintza arloak.
- Jabetza Ganbera.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Kontseilaritza.
- Cáritas, Goiztiri eta udalerriko beste gizarte erakunde batzuk.

#### **Berariazko helburua**

- 3.2. Eskuduntza duen administrazioari lagundu eta harekin batera etxebizitza sozialen politika garatu, atzerriko etorkinek bertakoen baldintza beretan etxebizitza eskuratzeko.

## **Neurriak**

- 3.2.1.-Udaleko Etxebizitza Batzordean eskuduntza duen administrazioarekin koordinaturik formulak diseinatzea eta gai horren buruz udal araubidea ezartzea.
- 3.2.2. Alogera merkeak izateko eta etxebizitzak zaharberritzeko egitarauak eskuduntza duen agintaritzarekin bultzatu eta garatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Eretza (herri erakundea).
- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzua.
- Barakaldoko Udala Ondarea eta Hirigintza arloak.
- Jabetza Ganbera.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Kontseilaritza.
- Cáritas, Goiztiri eta udalerriko beste gizarte erakunde batzuk.

## **Berariazko helburua**

- 3.3. **Inmigrazioari dagozkion errealitate espezifikoak kontuan hartuko dituzten etxebizitza sozialen udal politikak bultzatu.**

## **Neurriak**

- 3.3.1. Udal etxebizitzari buruzko araubidean inmigrazioaren aldagaia kontuan hartu, atzerriko etorkinek bai eta baztertutako beste kolektibo batzuk ere etxebizitza eskuratzea bermatzeko, infra-erakundeak eta pilaketak ekidinez.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Eretza (herri erakundea).
- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
- Barakaldoko Udala Ondarea eta Hirigintza arloak.
- Jabetza Ganbera.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Kontseilaritza.
- Cáritas.
- Goiztiri.

## **Berariazko helburua**

- 3.4. **Hurrenez hurren erakunde sozialekin eta pribatuekin koordinazioa eta sentsibilizazioa sustatu.**

## **Neurriak**

- 3.4.1. Erakunde sozialekin lanean jardun etxebizitza egitarauak garatzeko.
- 3.4.2. Udalerriko higiezinaren sektorea eta herritarrak inplikatzeko kanpainak.

## Agenteak eta bitartekariak

- Eretza (herri erakundea).
- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzua.
- Barakaldoko Udala Ondarea eta Hirigintza arloak.
- Jabetza Ganbera.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Kontseilaritza.
- Cáritas, Goiztiri eta udalerriko beste gizarte erakunde batzuk.

## HEZKUNTZA ARLOA

Arlo honetan, atzerritarrek, normalizazioaren printzipioaren markoan, oinarritzko kultur eskubide duten hezkuntzarako eskubidea erabat ziurtatzeko bideratutako eskuartzeak sartzen dira. Jarduketaren eremuak hala derrigorrezko hezkuntza nola, gure sisteman, sektore publikotik eman nahiz ziurtatu bestelako hezkuntza ekintzak –bereziki, helduen hezkuntza– hartzen ditu barnean.

### **Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdi garrantzitsuak:**

- Hizkuntza eta hezkuntza egokitzapenerako eragozpenak. Ikastegietan hizkuntza indartzen irakasleek duten funtsezko egitekoa.
- Datuak ikusita, atzerriko etorkinen adin txikikoen %98 A eta B ereduetan eskolaratzen da. %2,2ak aukeratu du D eredia.
- Zonaldeka, egoitzazko pilaketa handirik gertatzen ez den arren, pilaketarako joera Barakaldoko ikastetxeetan egin matrikulazioetan perfilatuz doa.
- Curriculumak kultur aniztasunarekin egokitu beharra.
- Etorkinen kolektiboak eskola-prozesuan parte hartu beharra.
- Ikastegietan eskolaz kanpoko jardueretarako eskaintzak dauden arren, seme-alaben eskola orduak eta gurasoen lanorduek batera ditzaketen irekitze ordutegiak ez dira aski.

## 4 OROTARIKO HELBURUA

*Atzerriko etorkinak hezkuntza sistemara sartzeko modua bermatzea, eta bertan sustatzeko aukerak ematea.*

### **Berariazko helburua**

- 4.1. Ikasle etorkinek dituzten eragozpenetarako elementu zuzentzaileak eta konpentsaziozko neurriak ahalbidetuko dituzten neurri egokiak garatu, hezkuntza sisteman.

## **Neurriak**

- 4.1.1. Udalak, Berritzegunek eta ikastegiek, lurralde bakoitzeko Eskolaratze Batzordeetan parte hartzeko eskaria egitea.
- 4.1.2. Instituzio eta gizarte bilbearekin komunikatzeko eta koordintatzeko bideak erraztea, eta ikastegietarako Harrera Planaren burutzapenean eta garapenean parte hartzea.
- 4.1.3.- Kultur aniztasunaren arretari buruzko planekin koordinatzea, Barakaldoko Berritzegunen.
- 4.1.4. Ikastegietako curriculumetan atzerriko herritarren jatorrikoz kultura eta hizkuntza desberdinak sartzeko ekimenei laguntza ematea.
- 4.1.5. Eskolaz kanpoko jardueren programazioa udalerriko kultur aniztasun errealitatera egokitzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.

## **Berariazko helburua**

- 4.2. **Atzerritarren hizkuntza integrazioa bultzatu, arreta berezia jarriz euskararen ikaskuntzan.**

## **Neurriak**

- 4.2.1. Udalerriko ikastegietan dauden Hizkuntza Indartzeko Irakasleekin lan egitea.
- 4.2.2. Hizkuntza bien ikasketa susta dezaketen gizarte ekimenetan inplikazioa bultzatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.

## **Berriazko helburua**

- 4.3. **Atzerriko ikasle etorkinen gurasoek, tutoreek eta erreferentziatzen dituzten inguruek eskola-ordezkaritza duten organoetan parte hartzea bultzatu.**

## **Neurriak**

- 4.3.1. Inmigratioak ikasgeletara dakartzan balore positiboak indartzea, sentsibilizazio jardueren bitartez.
- 4.3.2. IGEak inplikatzeko dituzten kulturarteko jarduerak garatzea.
- 4.3.3. Etorkinen gurasoen partehartzea bultzatzea, IGEetan eta Eskola Kontseiluetan.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigratioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigratioaren Zuzendaritza.

## **Berriazko helburua**

- 4.4. **Bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza sustatu, atzerriko etorkin helduek hizkuntza zailtasunak konpentsatzeko aukera ematen duten hezkuntza zentroetan.**

## **Neurriak**

- 4.4.1. HIIk atzerritarrentzako eman ikastaroetan atzerriko etorkin helduen parte hartzea sustatzea.
- 4.4.2. Helduentzako unibertsitatean eta helduentzako irakaskuntza arautuan etorkin helduen parte hartzea sustatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigratioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigratioaren Zuzendaritza

## **Berriazko helburua**

- 4.5. Atzerriko adin txikikoen eskolaratzea ez ezik absentismoaren eta eskolatu gabeen aurkako borroka sustatzea, ikastegiei laguntza emanez.

## **Neurriak**

- 4.5.1. Eskola porrotari aurrea hartzeko hizkuntzaren irakaskuntza dabilten gizarte ekimeneko erakundeekin lankidetzatza protokoloak ezartzea.
- 4.5.2. Adin txikiko etorkinei eskolaratzen laguntzeko konpentsaziozko neurrietan parte hartzea eskolekin batera.
- 4.5.3. Jantoki, eskola material eta garraioetarako beken sarea sustatzea.
- 4.5.4. Adin goiztiarretan (0-3 urte) eskolaratzea bultzatzea.
- 4.5.5. Atzerriko ikasle etorkinak lanbide-heziketara orientatzea eta sartzea bultzatzea.
- 4.5.6. Atzerriko ikasle etorkinak okupazio-heziketara orientatzea eta sartzea bultzatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigratioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigratioaren Zuzendaritza.

## **Berriazko helburua**

- 4.6. Eskola unibertsoan elkarbizitza errazteko kulturarteko kontaktua sustatu.

## **Neurriak**

- 4.6.1. Arrazakeria borrokatzeko eta giza-eskubideak eta desberdintasunarekiko errespetatzeko eskola, aisi eta aisialdiko jarduerak.
- 4.6.2. Gizarte mugimenduen eta IGEen egitekoa bultzatu eta sustatu, kulturarteko jardueretan, eskola eremuan.
- 4.6.3. Ikasgelan landu beharreko kulturarteko egitarauetan parte hartzea eta egitarauak burutzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.

- Barakaldok Berritzegune.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.

## **Berariazko helburua**

- 4.7. **Hezkuntza sistemaren alorrean neurri egokiak garatu, kulturarteko errealitatera egokitzeko.**

### **Neurriak**

- 4.7.1. Eskolaz kanpoko jardueren egitarauetan kulturarteko jarduerak sartzea.
- 4.7.2. Bertako gurasoekin sentsibilizazio jarduerak diseinatzea.
- 4.7.3. Ikastegietako irakasleekin sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Hezkuntza, Kirola eta Euskara arloa.
- Barakaldoko Udaleko Kultura eta Gazteria arloa.
- Barakaldoko Udaleko Anderea arloa.
- Herri ikastegiak eta hitzartutakoak.
- Barakaldoko Berritzegune.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Inmigrazioaren Zuzendaritza.

## **HIRI PARTAIDETZA ARLOA**

Arestian azaldutako hiritartasun kontzeptuari jarraituz, zeinak atzerriko egoiliarra erkidego zibil barakaldarreko kide gisa onartzea eskatzen duen, ahalik eta eskubide politiko gehien bermatu behar zaizkio. Barakaldoko gizartean parte hartuko duela ziurtatzeko, eskubide hori banaka nahiz taldeka erabiltzeko moduko jarraibideak ezarri dira.

### **Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak:**

- Barakaldoko elkartegintza mugimendua eta gizarte-bilbea ahulduta daude.
- Udalerrian bi elkarte daude –Cáritas eta Goiztiri– laguntzaren xede etorkinak dituztenak.
- Orain arte, ez da Barakaldon etorkinen elkarterik batere.

## 5 OROTARIKO HELBURUA

*Etorkinen kolektiboaren eske eta beharrak bideratu ahal izateko partaidetza eta elkarrizketa bideak sustatzea, gizarte bizitza barakaldarrean antolatuta eta parte hartzeko behar dituzten baliabideak eskainiz.*

### **Berariazko helburua**

5.1. Etorkin atzerritarren parte hartze politikoa sustatu, herri mailan.

#### **Neurriak**

5.1.1. Inmigrazio Udal Taldea sortu eta martxan jartzea.

5.1.2. Gizarte Ongizatearen Udal Kontseilua sortzea eta martxan jartzea, bertan txertatuko delarik Inmigrazio Udal Taldea.

#### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.

### **Berariazko helburua**

5.2. Udalerriko etorkinen artean elkartegintza bultzatu bai eta Barakaldoko instituzio politiko, kultural eta sozialetan parte hartzea ere.

#### **Neurriak**

5.2.1. Etorkinen elkartegintza sustatzeko egitarauak eragitea.

5.2.2. Udalerriko etorkinek programaturiko kulturarteko jardueretan parte har dezaten sustatzea.

5.2.3. Kultura desberdinak topo egiteko espazioak sortzea.

5.2.4. Udal baliabideak aldi baterako lagatzea, elkarte desberdinek jarduera jakinak buru ditzaten.

#### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Udalerriko erakunde sozialak.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.

## KULTUR, KULTURARTEKOTASUN ETA SENTSIBILIZAZIO ARLOA

Kultur, kulturartekotasun eta sentsibilizazio arloak, kultur eskubideen markoaren barruan, kultura sustatzeko, interesatuak beraiek beren jatorrizko herrialdeetako instituzioekin harremanak ezartzeko eta kultur aniztasun horiek ordezkari ditzaten organo nahiz taldeen jabeentzako norabideak txertatzen ditu, laguntza publikoa duen autonomia marko bat izan dezaten, beren kultur identitatea euskal gizartean libre garatzeko.

Arlo honetan, ikuspegi integratzailetik abiatuz, inmigrazioaren inguruan gizarte barakaldarrari informazioa eta heziketa emateko moduko eskuartzeak sistematizatuko dira. Era berean, sentsibilizazio soziala, presio politikoa eta salaketa publikoa dira gizarte taldeen partaidetza sustatu eta inmigrazioaren politikara abiarazteko biderik egokienak.

### **Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak:**

- Barakaldon ez da auzokako asentamendu piloturik, ezta ghettoak sortzeko joerarik ere. Populazio osoaren %1,5en daude 63 nazionalitate sarturik.
- Etorकिन populazioaren partaidetza oso eskasa da hiriko kultur eskaintzan.
- Etorकिन eta harrerako populazioak ez ditu elkarren kultur giltzarriak ezagutzen.
- Datuak ikusita, ez dago eliz katoliko eta ebanjelikoez aparteko bestelako kultugetarako lekurik.

## 6 OROTARIKO HELBURUA

*Herritarren elkarbizitza sustatzea, balore demokratikotzat ditugun solidaritateri, tolerantziari, elkar ezagutzeari eta aniztasunaren errespetuari lehentasuna emanez.*

### **Berariazko helburua**

- 6.1. Bizitza osoan zehar, arautu gabeko heziketa iraunkorraren alorrean neurriak garatu, kulturarteko errealitatera egokitzeke.

### **Neurriak**

- 6.1.1. Bizitza osoan zehar, arautu gabeko ikasketa programetan kulturarteko jarduerak sartzea.
- 6.1.2. Hiriko baliabide soziokulturaletan, kulturarteko programak egikaritzea eta haietan parte hartzea.
- 6.1.3. Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio jarduerak diseinatzea.

- 6.1.4. Agente soziokultural guztiekin batera, sentsibilizazio jarduerak sustatzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Anderea eta Nazioarteko Kooperazioa arloa.
- Barakaldoko Udaleko Kultura eta Gazteria arloa.
- Hezkuntza, Euskara eta Kirolak arloa.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Partehartzeko Udal Kontseiluak.
- Udalerriko Erakunde Sozialak.

### **Berriazko helburua**

- 6.2. Kultur aniztasunaren ikusgarritasuna sustatu.

#### **Neurriak**

- 6.2.1. Udalerriko kultur aniztasuna hedatzeko ekintzak sustatzea.
- 6.2.2. Inmigrazioaren Udal Taldeak udalerrian burutuko diren kulturarteko jarduerak dinamizazio lana egin dezan bultzatzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Anderea eta Nazioarteko Kooperazioa arloa.
- Barakaldoko Udaleko Kultura eta Gazteria arloa.
- Hezkuntza, Euskara eta Kirolak arloa.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.

### **Berriazko helburua**

- 6.3. Espazio publikoetan elkarbizitza sustatu.

#### **Neurriak**

- 6.3.1. Kulturarteko topaketetarako espazio publikoak sortu, Kultura Etxeen Sare Normalizatuaren eta haren herritarrentzako kultur gela barruan elkarbizitza ahalbidetzeko.
- 6.3.2. Udalerrian, antolaturiko kolektiboak sentsibilizatzeko jarduerak diseinatzea eta burutzea.
- 6.3.3. “Soziabilitate handiko” espazio guztietan, auzo, plaza, parke publiko eta abarretan, alegia, sentsibilizatzeko eta kulturarteko jarduerak diseinatzea eta burutzea.
- 6.3.4. Orain arte aisiaren eta aisialdiaren hezkuntza esparruan egin izan diren jarduerak hedatzeko mekanismoak diseinatzea eta burutzea: Kultura Etxeetako programazioa, KZgunea, etab.

## Agenteak eta bitartekariak

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Barakaldoko Udaleko Anderea eta Nazioarteko Kooperazioa arloa.
- Barakaldoko Udaleko Kultura eta Gazteria arloa.
- Hezkuntza, Euskara eta Kirolak arloa.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Partehartzeko Udal Kontseiluak.
- Udalerriko Erakunde Sozialak.

## LAN ARLOA

Eskubide ekonomiko berezienak –partikularki, lan eskubidea– ziurtatzeko gai-eremua dugu hau. Lan arloak subjektua atzerritar izateagatik lan merkatura sartzeko eragozpenek sortutako desoreka zuzendu behar luke. Zentzu horretan, hala heziketa espezifikora nola lanean zuzenean txertatzera orientaturiko norabideak hartzen ditu bere baitan arlo honek.

### Aldez aurretik kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak :

- Etorkinek lan merkatuaren oso baldintza eskaseko sektoretan dihardute.
- Lan arautuko merkatura sartzeko oso aukera gutxi.
- Etorkinen lanbide-kalifikazioak ez datoz bat beraiek garatutako lanbide-jarduerekin.

## 7 OROTARIKO HELBURUA

*Atzerriko etorkinak lan merkatura eta lanbide heziketara sartzeko aukerak sustatzea eta bermatzea, nazionalen baldintza beretan.*

### Berariazko helburua

- 7.1. Laneratze gaiaren inguruan dauden egitura eta zerbitzuen berri atzerriko etorkinei ematea.

### Neurriak

- 7.1.1. Herritarrentzako informazio eta sentsibilizazio kanpainak sustatzea eta bultzatzea.
- 7.1.2. Sarean gaiari buruzko materialak hedatzea: Gizarte Zerbitzuak ataria.
- 7.1.3. Informazio mintzaldiak Kultura Etxeetan, etorkinen elkarteak eta horiei laguntza ematen dieten bestelakoak.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- INEM.
- Langai.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.
- Caritas-Norabide, Goiztiri eta udalerriko bestelako erakunde sozialak.
- Sindikatuak.

## **Berriazko helburua**

- 7.2. **Laneratze heziketa, orientazio, programa eta ibilbideen metodologia eta horietara sartzeko baldintza egokitu.**

## **Neurriak**

- 7.2.1. Atzerritartasun aldaera enplegu programak diseinatu eta burutzerakoan kontuan hartzea.
- 7.2.2. Etorkin atzerritarrentzako alde aurretiko programetan eta laneratzeoetan parte hartzea sustatzea, mekanismoak bultzatuz.
- 7.2.3. Etorkinei lan postuetan heziketa programetan parte hartzeko aukerak eskaintzea, beharkizun guztiak betetzen dituztenean.
- 7.2.4. “Langai” lanpostua lortzeko euskal zerbitzuarekin lan egitea, “Lanbide” informatikako operatiboan etorkinak sartzeko.
- 7.2.5. Etorkinen kolektiboari zuzendutako informazio, orientazio eta enplegu programak hedatzeko kanpainak taiutu, laneratze ibilbide egokia egin dezaten.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- INEM.
- Langai.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.
- Caritas-Norabide, Goiztiri eta udalerriko bestelako erakunde sozialak.
- Sindikatuak.

## **Berriazko helburua**

- 7.3. **Udalerriko enpresen partehartzea bultzatu, enplegu eta inmigrazio gaietan.**

## **Neurriak**

- 7.3.1. Enpresak laguntzeko Inguralderen zerbitzuak hedatu etorkinen kolektiboan.
- 7.3.2. Udalerriko enpresei zuzendutako sentsibilizazio jarduerak ezartzea.
- 7.3.3. Atzerriko etorkinak kontratatzeko tramitazio espezifikuari aurre egiteko aholkularitza barne hartzen duten informazio jarduerak.
- 7.3.4. Atzerriartasunaren inguruan hedatzeko materiala prestatzea, enpresa-elkarteei zuzentzeko.
- 7.3.5. Enpresa elkarteetan etorkinen parte hartzea bultzatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- INEM
- Langai
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.
- Caritas-Norabide , Goiztiri eta udalerriko bestelako erakunde sozialak.
- Udalerriko enpresa-elkartek.

## **Berariazko helburua**

- 7.4. Enpresak sortzeari buruzko aholkularitza eta informazioa.

## **Neurriak**

- 7.4.1. Kultura ekintzailea sustatzea, atzerriko etorkinengan.
- 7.4.2. Enpresak sortzeko berariazko heziketa.
- 7.4.3. Enpresa egitasmoak tutorizatzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- INEM
- Langai
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.
- Caritas-Norabide , Goiztiri eta udalerriko bestelako erakunde sozialak.
- Udalerriko enpresa-elkartek.

## **Berariazko helburua**

- 7.5. Enpresa-egitasmoak martxan jartzen lagundu.

## **Neurriak**

- 7.5.1. Enpresa-egitasmoa martxan jartzeko finantzaketarik egokiena lortzea, lankidetzaz hitzarmenak ezarriz, hala erakunde finantzarioekin nola bestelako organismo eta instituzioekin.
- 7.5.2. Enpresak sortzeko berariazko aholkularitza.
- 7.5.3. Enpresa jarduera garatzeko lokalak abantailazko baldintzetan eskaintzea (enpresa haztegiak).

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- INEM
- Langai
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.
- Caritas-Norabide , Goiztiri eta udalerriko bestelako erakunde sozialak.
- Udalerriko enpresa-elkarteak.

## **Berariazko helburua**

- 7.6. Udalaren eta Inguralderen arteko koordinazioa eta jarraipena eta ebaluaketa formulak diseinatzea.

## **Neurriak**

- 7.6.1. Etorquinek INGURALDEko eta Udaleko zerbitzu desberdinei egin eskabideetan agertzen diren datuak biltzea, datuok Inmigrazioaren Udal Behategiarekin koordinatzeko.
- 7.6.2. Lan mahai teknikoa eratzea, eta hura koordinatzeko batzarrak ezartzea.

## **Agenteak eta bitartekariak**

- Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- INGURALDE.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Gizarte Ongizatearen Udal Kontseiluak.

## **BATERAKO GARAPEN ARLOA**

Baterako garapen arloak gure instituzioek kanporako kooperazio ekintzarako jarraitzen dituzten norabideak hartzen ditu bere baitan. Kanporako eskuartze horrek, kooperazio zuzena, talde sozialen partehartzearen bitarteko kooperazio partehartua eta gure udalerrian finkaturiko etorkinen kolektiboen beraien partehartze zuzenaren bitarteko baterako garapena hartzen ditu bere baitan.

**Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak:**

- Barakaldon ez da gaur arte etorkin elkarterik batere.
- Nazionalitatez nazionalite, talde nagusiak kolonbiarrak (%22), txinatarrak (%12) eta marokoarrak (% 8) dira.

## **8 OROTARIKO HELBURUA**

*Herrialde migrazio-hartzaile eta igorleen arteko kooperazioa eta lankidetzeta politika berriak sustatzea, horretarako, etorkinak garapen-bektore gisa duen potentziala aprobetxatuz.*

### **Berariazko helburua**

- 8.1. Garapenari laguntza emateko ekimenak deszentralizatzeko formulak garatu, tokiko administrazioaren, erakundeen eta mugimenduen egitekoa indartuz.

### **Neurriak**

- 8.1.1. Udalerrian presentziarik handieneko migrazio-fluxu igorle diren geografia-erregioetako administrazioen, erakundeen eta mugimenduen beharrak antzeman, eta haien lanean jardutea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Udaleko Nazioarteko Kooperazioa arloa.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Kooperazioaren Udal Kontseilua.

### **Berariazko helburua**

- 8.2. Atzerritarren partehartze zuzena sustatu, beren jatorrizko herrialdeetako egitasmoetan.

### **Neurriak**

- 8.2.1. Atzerriko etorkinen partehartzea bultzatzea, udalerriko garapenerako kooperazio elkarrekin.
- 8.2.2. Atzerriko etorkinen partehartzea bultzatu, Kooperazioaren Udal Kontseiluan.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Udaleko Nazioarteko Kooperazioa arloa.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren Udal Taldea.
- Kooperazioaren Udal Kontseilua.

## B. INSTRUMENTU ARLOA

Instrumentu arloak plana betetzeko beharrezkoa den instituzio jardute zuzena ziurtatzeko jarraibideak eta neurriak barne hartzen ditu. Hartzaile nagusiak instituzioak berak dira. Alor horiek integrazioa zuzenean bideratutako alorrak txertatzen ez badituzte ere, funtsezko alorretan gara daitezkeen euskarri egokiak, ordea, eskaintzen dituzte. Instrumentu arloak batez ere erantzukizun publikoko eta partehartze sozialeko printzipio gidarien ondorio dira.

### INSTITUZIO ANTOLAKUNTZA ARLOA

Arlo honek Inmigrazioaren Udal Politika garatzeko beharrezko organoak sortu eta antolatu ez ezik, hurrenez hurreneko funtzioak zedarritu ere egiten ditu. Era berean, bitarteko espezifikoa zuzkitzeko edota instituzio publikoen zerbitzura dauden langileak hezteko bestelako jarraibideak ere hartzen ditu bere baitan.

#### **Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak:**

- Sarean lan egiteko egiturak ezartzerakoan agertzen diren oztopoak.
- Udalena hausnarketarako barne foroak eta arlo arteko eztabaidak finkatu beharra.
- Udalerrian parte hartzeko eta errefrendua egiteko udalaz kanpoko foroak sustatu beharra.

## 9 OROTARIKO HELBURUA

*Udal partzela ezberdinak koordinatu, atzerriko etorkinen integrazioa lortzeko jarduketa guztiei izaera globala ezarriz.*

### **Berriazko helburua**

- 9.1. Udal arloen artean zeharkako lana bultzatu.

### **Neurriak**

- 9.1.1. Sektorearteko udal batzorde iraunkorra sortzea eta berregokitzea, plana lantzeko, eta jarraipena eta ebaluaketa egiteko.
- 9.1.2. Batzorde politikoa sortzea, plana lantzeko eta jarraipena eta ebaluaketa egiteko.
- 9.1.3. EEAren harrerako udal sarean eta Inmigrazioaren zuzendaritzan parte hartzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioko teknikaria.

- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.

### **Berriazko helburua**

- 9.2. **Profesionalei zuzendutako hezteko eta gaitzeko materialak eta ekintzak sustatu, inmigrazioaren dimentsioaren inguruan.**

#### **Neurriak**

- 9.2.1. Udal pertsonala atzerritartasun eta kulturartekotasunaren inguruko gaiena hezte.
- 9.2.2. Udaleko profil profesional desberdinekin lan eta hausnarketa monografikoak bultzatzea.

#### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigratioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.

### **Berriazko helburua**

- 9.3. **Hiritarren partaidetzarako udal kontseiluen eginkizuna bultzatu, hura baita udal politika lagundu eta errefrendua egiteko organoa.**

#### **Neurriak**

- 9.3.1. Gizarte Ongizateko udal kontseilua sortzea, eta bertara Inmigrazioaren Lan Taldea sartzea.

#### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigratioko teknikaria.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Ingurugiroa, Sanitatea eta Kontsumoa arloa.
- Inmigrazioaren udal taldea.
- Plana ebaluatu eta jarraipena egiteko sektorearteko udal batzordea.
- Gizarte Ongizateko Udal Kontseilua.
- Udal erakunde sozialak.

## **INFORMAZIO ARLOA**

Arlo honek inmigrazioaren errealitatea ezagutzea du xede nagusia, hori izango baita plangintza egoki baterako tresna. Tresna gisa erabiliko den informazio horren bilaketa partzialki nahiz globalki, izaera iraunkorrez nahiz

etenez eta zuzenean burutuko du udalerririk Inmigrazioaren Udal Behatokiaren bitartez (ikus I. eranskina).

**Kontuan hartu beharreko diagnostikaturiko alderdiak:**

- Barakaldon finkatutako migrazio-fluxuei eta finkatze araei buruzko informazio eta monotorizazio eza.
- Ez dago daturik etorkinek udal baliabide desberdinak nola erabiltzen dituzten jakiteko.

## **10 OROTARIKO HELBURUA**

***Barakaldoko udalerrian inmigrazioaren errealitate kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutzea.***

### **Berriazko helburua**

- 10.1. Barakaldoko inmigrazioaren egoerari buruzko informazioa sortu, hedatu eta erabiltzeko sistema garatu.**

### **Neurriak**

- 10.1.1.** Inmigrazioaren Udal Behatokia sortzea.  
**10.1.2.** Inmigrazioaren Euskal Behatokiarekin eta datu-bilketan inplikaturiko beste agente batzuekin lanean aritzeko protokoloa ezartzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioaren Udal Behatokia.
- Inmigrazioaren Euskal Behatokia.
- Udaleko Estatistika arloa.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Unibertsitateak eta bestelako Ikerkuntza erakundeak.
- EUSTAT
- EIN
- Inmigrazioaren Udal Taldea.

### **Berriazko helburua**

- 10.2. Udalerriko migrazioaren errealitateari buruzko ikasketak egitea sustatu.**

### **Neurriak**

- 10.2.1.** Gure udalerriko inmigrazioaren inguruko hainbat ikasketa egiteko deialdiak.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioaren Udal Behatokia.
- Inmigrazioaren Euskal Behatokia.
- Udaleko Estatistika arloa.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Unibertsitateak eta bestelako Ikerkuntza erakundeak.
- EUSTAT
- EIN
- Inmigrazioaren Udal Taldea.

### **Berariazko helburua**

10.3. Udal Planaren inpaktua eta betetze maila etengabe ebaluatu.

#### **Neurriak**

10.3.1. Udal inkestetan “inmigrazio” aldaera txertatu.

10.3.2. Udaleko web orrian INMIGRAZIORAKO FOROA martxan jartzea.

### **Agenteak eta bitartekariak**

- Inmigrazioaren Udal Behatokia.
- Inmigrazioaren Euskal Behatokia.
- Udaleko Estatistika arloa.
- Gizarte Zerbitzuak arloa.
- Unibertsitateak eta bestelako Ikerkuntza erakundeak.
- EUSTAT
- EIN
- Inmigrazioaren Udal Taldea.

## VIII. EBALUAKETA ETA JARRAIPENA

Planera sartutako egitarau eta egitasmo desberdinak ekintza zehatzen bitartez gartuko dira, ahalik eta ebaluaketa eraginkorrean ahalbidetuko duten adierazle giltzarriak espezifikatuz.

Barakaldoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak arloak egingo dio planari jarraipena, horretarako sortutako batzorde tekniko baten bitartez, bera baita ekimen honen gidaria.

Ebaluaketa ereduak ikuspegi mistoa izango du:

- Kanpokoak: egitarau bakoitzaren onuradun diren pertsonen iritzia kontutan hartzeko.
- Barrukoa: plana diseinatu eta egikaritzen duten agenteen lana ebaluatzeko.

Migrazio fenomenoak aldakorra denez, plana egikaritu bitartean, urteko ebaluaketak egingo dira, bai eta azken ebaluaketa ere, hura amaitzean.



